

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Arsenio Irazabalbeitia Araiztegi

*Antzuola,
Gipuzkoa
(1930)*

Aurkibidea



Biografia



Galartza auzoko Elorriaga baserrian jaio zen, lau anai-arrebatatik hirugarrena. Ama auzoko Gorrizandia baserrikoa zuen, eta aita, berriz, Elgetakoa. Uzarraga auzoko eskolan hasi zen sei urterekin. Joxe Mari Agirre bertako maisua, sakristaua eta ile-apaintzailea ere bazen, eta emazte sukaldariarekin batera taberna-jatetxea kudeatzen zuten auzoan. Arseniok eskola partikularrak jaso zituen Bergaran 11 urterekin, eta, geroago, Antzuolan ere ikasi zuen. Etxeko eta basoko lanetan jardun zuen urteetan. Auzotar batzuen artean esne-behi granja bat jarri zuten, baina behiok gaixotu zirenean utzi zion granjari. Orduan, “Movillas” ehun eta tindategi lantegian hasi zen lanean; handik Oregi tenplaketa lantegira joan zen, eta “Impreci” kooperatiban bukatu zituen bere lan jardunak, jubilatatu zenean. Amaren jaiotetxean bizi ziren hiru anai-arreba ezkongabeei laguntzera joan zen Gorrizandia baserrira, eta, azkenean, bertara ezkondu zen.

Zintak

ANT-084

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2010-09-13
- **Iraupena:** 73 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Oruesagasti, Ainitze

ANT-085

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2010-09-13

- **Iraupena:** 32 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Oruesagasti, Ainitze

ANT-118

- **Proiektua:** Antzuolako toponimia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Pavo Nuñez, Kristina
- **Data:** 2004-01-01
- **Iraupena:** 19 min
- **Euskarria:** Mini Disc

Pasarteak

1. Galartza auzoa

- **Erref:** ANT-084/002
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:01:34. **Bukatu:** 00:03:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Gaitzizenak

Laburpena:

Uzarragako parrokiak hiru auzo batzen ditu: Lizarraga, Uzarraga eta Galartza. Galartza auzoari "Txangala" esaten diote.

2. Uzarragako eskola eta maisua

- **Erref:** ANT-084/003
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:03:18. **Bukatu:** 00:04:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Uzarraga auzoko eskolan hasi zen sei urterekin, gerra hasi berritan. Joxe Mari Agirre zen Uzarragako maisua, sakristaua eta ile-apaintzailea, eta emazte sukaldariarekin batera taberna-jatetxea kudeatzen zuten auzoan.

3. Uzarragako taberna

- **Erref:** ANT-084/004
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:04:38. **Bukatu:** 00:05:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:

Joxe Mari Agirre zen Uzarragako maisua, sakristaua eta ile-apaintzailea, eta emazte sukaldariarekin batera taberna-jatetxea kudeatzen zuten auzoan. Joxe Mariren emaztea sukaldari oso ona omen zen. Zumarragara zihoan trena Iturriotzik pasatzen zenez, jende asko joaten zen inguru horretan mendi buelta egin eta, gero, Uzarragako tabernan jatera. Trena kendu zutenean, ordea, jendeak utzi egin zion joateari.

4. Uzarragako eskola eta Bergarako eskola partikularrak

- **Erref:** ANT-084/006
- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 00:06:05. **Bukatu:** 00:09:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:

Gerra garaia bazen ere, Uzarragan eskolak ez ziren eten herrian eta beste auzo batzuetan gertatu zen moduan. Gauzak horrela, herriko eta beste auzo batzuetako umeak ere joaten ziren Uzarragako eskolara. Guztira 60 ume inguru ibiltzen ziren auzo-eskolan: adin ezberdinetako neska-mutilak gela berean. Idatzi eta irakurri gaztelaniaz egiten zuten, baina maisuak azalpenak euskaraz ematen zizkien. 11 urterekin hasi eta hiru negutan Bergarara joan zen eskola partikularrak jasotzera.

5. Eskola kontuak

- **Erref:** ANT-084/009
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:10:57. **Bukatu:** 00:13:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:

Sei urterekin hasi eta 10 urtera arte ibili zen Uzarragako eskolan. Janaria etxetik eraman eta bertan jaten zuen. 11 urterekin hasi eta hiru negutan Bergarara joan zen eskola partikularrak jasotzera. Partikularrak arratsaz izaten ziren: Arsenio ez zen beti joaten, baserriko lanetan lagun behar izaten baitzuen. Gero, Antzuolan ere ibili zen eskola partikularrak jasotzen auzoko sei lagunekin batera.

6. Anaiak tuberkulosia harrapatu

- **Erref:** ANT-084/010
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:13:25. **Bukatu:** 00:14:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak

Laburpena:

Eskolak bukatu eta baserrian geratu zen Arsenio. Arsenioren anaia zaharrena, Manuel, gerran ibili zen Teruel aldean. Gerratik itzuli eta denbora batera tuberkulosia harrapatuta hil zen. Anaia hil eta hilabete gutxira atera omen zuten penizilina.

7. Abereak eta soroak

- **Erref:** ANT-084/012
- **Iraupena:** 0:00:32. **Hasi:** 00:15:28. **Bukatu:** 00:16:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzeta eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Sei behi, txahalak, bi idi-pare, 40 ardi inguru... zituzten. Soro onak zituzten, baina baso gutxi.

8. Garo-sailak

- **Erref:** ANT-084/013
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:16:00. **Bukatu:** 00:17:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

Mendian garo-sailak zituzten. Urtean, 14 lera-gurdi inguru biltzen zituzten. Garoa nola garraiatzen zuten azaltzen du.

9. Belar-batzera Araotzera

- **Erref:** ANT-084/014
- **Iraupena:** 0:03:34. **Hasi:** 00:17:04. **Bukatu:** 00:20:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzeta eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

Araotz aldeko baserri batean belar-batzen ibili zeneko kontuak. Etxe horretan gurdia kargatzeko belarra aspeldu egiten zuten, baina Arseniok ez zuen horrela egiten. Gurdia nola kargatzen zuen azaltzen du.

10. Matxakea, auzoko sei baserrirena

- **Erref:** ANT-084/018
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:26:44. **Bukatu:** 00:27:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Baserrria » Baserriko lanak » Garia
- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak

Laburpena:

Garia, artoa, arbia... ereiten zuten. Garia makinarekin jotzen zuten. Auzoko sei baserriren artean zeukaten matxakea eta bost zaldiko motorra: "Ameztzi" (Ameztizar), Elorriaga, Gorrizandia, Eguzkitza, Ugarriagagañekoa eta Ugarriagaazpikoa. Matxakea Bergaran egindakoa zen. Garia eskuz, segaz eta makinaz ebaki izan du.

11. Belarra ebakitzeko makina

- **Erref:** ANT-084/019
- **Iraupena:** 0:00:27. **Hasi:** 00:27:55. **Bukatu:** 00:28:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak
- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserrria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

<p>Gaztea zela, Araotzen basolanetan ibili zen. Hango baserri batean belarra ebakitzeko makina zuten.</p>

12. Garia, garoa eta belarra ebakitzeko makina.

- **Erref:** ANT-084/020
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:28:22. **Bukatu:** 00:29:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Herri-lurrak eta lur pribatuak
- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak
- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Auzokoen artean zuten garia, garoa eta belarra ebakitzeko makina. Ganaduarekin tiratuta mugitzen zuten makina. Aurretik, segaz aritzen ziren. Kontziela esaten zaion herri-sailean igitaiarekin ebakitzen zuten garoa auzoko batzuk.

13. Baso-garbitzen "itxuskixaz"

- **Erref:** ANT-084/021
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:29:59. **Bukatu:** 00:31:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Baserrria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

Elorriaga baserrian garo asko zuten. Garoa ganaduen azpiak egiteko erabiltzen zen. Orbela ere batzen zuten. Basoak auzolanean nola garbitzen zituzten azaltzen du: garoa eta zikina ebaki, eskuarearekin dena batu, elorri-arantza beltzarekin "itxuskixa" egin (erratz modukoa), dena erraztu eta basoa gorri-gorri uzten zuten.

14. Orbela, ardien azpietarako; ardi-satsa

- **Erref:** ANT-084/022
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:31:36. **Bukatu:** 00:33:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

Ardien azpiak egiteko erabiltzen zuten orbela. Basoan bildutako orbela pilatan bildu eta haritz- eta pago-adarrarekin estaltzen zuten, haizeak eraman ez zezan. Irailerako orbela ustelduta egoten zen. Ardi txabolan orbel-pilak egin eta azpiak egiteko erabiltzen zuten. Ardiak pixka bat zapaldutakoan, buelta ematen zioten ardi-satsa egiteko. Ardi-satsa bildu eta, udaberrian, soroan zabaltzen zuten.

15. Lurra lantzea, noiz eta nola

- **Erref:** ANT-084/024
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:34:05. **Bukatu:** 00:35:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Etxean gurasoak eta hiru anai-arreba bizi ziren. Idiak labrantzarako erabiltzen zituzten. Lau hektarea inguruko soroak zituzten. Azaroan, garia ereiten zen; ekainean, ebakitzen zuten. Ondoren, abuztuan, arbia ereiten zuten. Beste lursail batean, artoa eta baba ereiten zuten. Erremolatxa ereiten zuten artoarekin batera. Beti eduki izan zituzten astoak.

16. Ama, plazara

- **Erref:** ANT-084/025
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:35:49. **Bukatu:** 00:36:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Ohiturak eta bizimodua » Bizioak

Laburpena:

Larunbatetan joaten zen Arsenioren ama plazara, tratura. Oiloak, arrautzak, baba... eraman ohi zituen. Salmentan ateratako diruarekin, aste guztirako erosketak egiten zituen: kafea, azukrea, tabakoa... Arsenioren aita erretzailea zen

17. Aita txerri-hiltzailea

- **Erref:** ANT-084/026
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:36:29. **Bukatu:** 00:37:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea

Laburpena:

Arsenioren aita txerri-hiltzailea zen. Urtean, auzoko doze bat txerri hiltzen zituen. Aitak txerri-hiltzeari utzi zionean, Arseniok heldu zion eginkizun horri. Arsenioren semea ere aritzen da txerri-hiltzen.

18. Txerri-hiltzea, aitagandik ikasia

- **Erref:** ANT-084/029
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:38:23. **Bukatu:** 00:39:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Baserrria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea

Laburpena:

Arsenioren aita txerri-hiltzailea zen. Aitak irakatsi zion Arseniori txerri-hiltzen. Auzoko baserrietan ibiltzen zen eginkizun horretan. Ez zuen kobratzen txerria hiltzeagatik, auzolan moduan egiten zuten. Trukean, odolki edo solomoren bat jasotzen zuten.

19. Esne-behi granja eta Lana kooperatiba

- **Erref:** ANT-084/031
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:41:10. **Bukatu:** 00:43:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

1966an sortu zuten auzotar batzuen artean esne-behi granja, baina behiak gaixotu zirenean utzi zion granjari Arseniok. 60-65 behi eduki zituzten. Azkoititik joaten zen esnezalea esnea biltzera. Lana kooperatibako bazkide ziren.

20. Jatorduak

- **Erref:** ANT-084/033

- **Iraupena:** 0:00:49. **Hasi:** 00:45:37. **Bukatu:** 00:46:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Armosuan: esnea zopekin edo berakatz-zopa urdai puska batekin. Bazkaritan: aza, babak edo azalorea. Afaritan: gaztainak, berakatz-zopa...

21. Otea ebakitzea, auzolanean

- **Erref:** ANT-084/037
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:58:08. **Bukatu:** 01:00:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:

Otea ebakitzea auzolanean egiten zuten. Otea ebaki, pilatu eta leran eta gurdian garraitzen zuten. Gero, otea soroan zabaldu eta satsak ateratzen zituzten ondora; pilatan biltzen zuten dena, otea eta satsa tarteka nahastuz. Modu horretan, satsa bikoiztu egiten zen. Satsa ongarri moduan erabiltzen zen.

22. Auzoko bideak garbitzea

- **Erref:** ANT-084/038
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 01:00:13. **Bukatu:** 01:02:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Bideak

Laburpena:

Bideak auzokoen artean txandatzuz garbitzen zituzten. Baserri batek zegokion lana egindakoan, hurrengokoari pasatzen zion aitzurra, errelebo moduan. Hamabostean behin garbitu behar izaten ziren bideko erretenak ("sangraderoak"). Bideko zuloak nola konpontzen zituzten azaltzen du.

23. Uzarragako eliza eta kanposatua

- **Erref:** ANT-084/040
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 01:04:04. **Bukatu:** 01:05:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Eraikuntza erlijiosoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak

Laburpena:

Uzarragako eliza eta kanposatua inguruko zaharrenetakoak omen dira. Garai batean, Gatzagako hilotzak bertan lurperatzen omen zituzten beste herrietan ez zegoelako kanposanturik.

24. Tratua eta bideko kontrolak

- **Erref:** ANT-085/005
- **Iraupena:** 0:00:44. **Hasi:** 00:09:10. **Bukatu:** 00:09:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Arsenioren ama larunbatero joaten zen Bergara, tratua. Gerraostean, mikeleteak kontrolak jartzen zituzten baserritarrei herrian erositako jeneroa konfiskatzeko. Baserritarrek hori jakinda, beste bide batetik egiten zuten etxera buelta.

25. Gerraostea: errazionamendua, kupoa eta miaketak

- **Erref:** ANT-085/008
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:11:33. **Bukatu:** 00:13:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Gerraosteko bizimodua. Olio, tabakoa... errazionamenduan hartu behar izaten zen. Garia, artoa, baba, patata... herrian entregatu behar izaten zuten baserritarrek. Baserritarrek baba, artoa, garia... ezkutatu egiten zuten, eta guardia zibilek baserriak miatzen zituzten.

26. Errotak zigilatu

- **Erref:** ANT-085/009
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:13:36. **Bukatu:** 00:15:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Baserrria » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

Gerraostean ez zuten goserik pasatu. Inguruko errotak ixten zituztenean, Antzuolako alkatearen errotara joan behar izaten zuten "han libre" baitzen: Lizarraga auzoko Larrebarrengo errotara joan behar izaten zuten. Jendea gauez Osintxuko errotara batera ere joaten omen zen. Auzoko errota ixten zutenean, zigilua kendu eta martxan jarri izan zuten: orduan, auzokoak txandatuz joaten ziren errotara. Eskuzko errota txiki bat zuten etxean, baina ez zuen irina behar adina txikitzen.

27. Auzoko errota, argindarra eta ura

- **Erref:** ANT-085/010
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:15:49. **Bukatu:** 00:17:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Baserría » Baserríko lanak » Erróta

Laburpena:

Auzoko errota bi errotarri zituen: bata artoarentzako, bestea gariarentzako. Erróta eta indarra Bergaran bizi zen alemaniar batek muntatutakoa zen. Erróta martxan zebilenean, gau partean ez zen argi askorik izaten. Kandelak, kriseiluak ("kandilak")... erabiltzen zituzten etxean argia egiteko. Udan, berriz, ur gabezia izaten zen.

28. Auzoko abadea

- **Erref:** ANT-085/013
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:19:52. **Bukatu:** 00:20:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Auzoko abadeari buruzko kontuak. Abade bakoitzak bere "amakasa" (serora) izaten zuen. "Amakasa" auzokoa zen, sakristauaren alaba. Auzotarrek hainbat lan egin behar izaten zituzten abadearentzat. Egurra zeukanak egurra eraman behar izaten zion; egurrik ez zuenak, egurra txikitzera joan behar izaten zuen...

29. Aurreneko motozerra

- **Erref:** ANT-085/014
- **Iraupena:** 0:03:56. **Hasi:** 00:20:47. **Bukatu:** 00:24:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserríko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

Alde bietatik ibiltzen zen aurreneko motozerra Arseniok eduki zuen Gipuzkoan. Alemaniatik ekarri zion lehengusu ingeniari batek. Sthil markako motozerra zen. Motozerrak nola funtzionatzen zuen, konponketak... azaltzen ditu.

30. Aizpurutxoko erromeria

- **Erref:** ANT-085/015
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:24:43. **Bukatu:** 00:26:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Antzuolara, Aizpurutxora, Bergararara, Osintxura... joaten ziren erromeriara. Aizpurutxon erromeria ona egiten zen. Azkoitian "jesuitek agintzen zuten, eta han ezin zen agarrauan" dantzarik egin. Aizpurutxon libre zen baltsean egitea, eta, erromeria egiten hasi zirenean, Azkoiti aldeko jendea, Zumarragakoa eta inguruetako jendea bertan biltzen hasi zen.

31. Trena eta tren-istripua

- **Erref:** ANT-085/016
- **Iraupena:** 0:03:02. **Hasi:** 00:26:52. **Bukatu:** 00:29:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak

Laburpena:

Trenari buruzko kontuak. Antzuolan aldapa handia zegoen trenarentzat, eta, txirringek irrist egiten zutenez, harea botatzen omen zuten errailetan. Galartza aldean bi bagoik elkarren kontra jo zuteneko istripua kontatzen du.

32. Inguruko tren-geltokiak

- **Erref:** ANT-085/017
- **Iraupena:** 0:00:41. **Hasi:** 00:29:54. **Bukatu:** 00:30:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:

Trena kendu zutenean, kaminoak hobetu zituzten. Tren-geltokia urruti geratzen zitzaien Arseniori eta, Antzuolako tren-geltokia Uzarragan zegoen; oinez ordubeteko bidea zuten hara. Hurrengo tren-geltokia Bergaran zegoen.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-05-12

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com